




t x o s t e n a

2001eko TXOSTENA

AURKIBIDEA

<u>7</u>	Agurra
<u>11</u>	Osaera
<u>15</u>	2001eko ekitaldiaren garapena
<u>21</u>	Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzuaren oroitidazia
<u>25</u>	Aurrekontuari buruzkoak
<u>31</u>	Estatistika-eranskina



Agurra

2000 ko ekitaldian hazkundera nabarmena izan zela esaten genuen, lehenengo sei hilekoan %5ekoa baino handiagoa baitzen hazkunde hori. 2001ean, ordea, batez besteko hazkundera dezente apalagoa izan da, %3,2koa; ondorioz, enplegusortzea ere moteldu egin da (%10,6ko langabezi tasa), euskal ekonomiak duen industri izaeragatik, batez ere. Eta horrek eragina izan du euskal kooperatibismoan, hau ere industrial baita funtsean (industriak jarri zituen hiru pezetako bi Gizarte Ekonomiak 2000. urtean sortutako balio osoan).

Testuinguru ekonomiko honetan, indarrean dagoen plangintza estrategikoaren erdi-erdian dago Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua; eta ekitaldi honetarako, kooperatibismoa sustatu eta zabaltzeko duen eginkizuna eta kooperatiba-gaietan Herri

Administrazioen aholkulari-organo gisa duen eginkizuna zehaztu nahi ditu, ondorengoak azpimarratuz:

- Kooperatibismoari buruzko prestakuntza, sustapena eta zabalkundera egiteko jarduerak aztertu eta berritzea (kooperatibistek —edota hauen erakundeek— balioetsiko dituzten emaitzekin): kooperatiba-prestakuntza bultzatuz, kooperatiba-egiturak indartuz, sustapenerako beste politika publiko batzuk integratuz eta horietan lagunduz, finantzaketa erraztuz.
- Euskal kooperatiba-sustapenean bere lekua eta eginkizuna bilatzea.
- Gatazkak konpontzeko zerbitzuak ematea, kooperatiba-araudia berri eta aplikatzea, eta hori betetzeko Administrazioarekin batera lan egitea.

Horretarako, eta antolaketa-alderdi operatiboak erabakigarriak direlako, arreta bereziz zaindu dira ondorengo alderdi hauek:

- Kontseilariak berek osatutako lan-taldeen funtzionamendua.
- Euskal enpresa-errealitate kooperatiboaren eskariekiko (interesekiko) hurbiltasuna, beren ordezkari diren erakundeen bidez betiere.
- Kontseilari ohien harreman-gaitasuna, eskarmentua eta jakintza aprobetxatzea.
- Lan-giro egokia sortzeko ahalegina, langileen interesak eta antolaketa-garapena uztartuz.

Ekintzen Oroitidazki edo Txosten honek horren guztiaren berri zehatza ematen du: zer egin den eta horretarako, ekitaldi honetan sendotuta, erabili diren baliabide pertsonal eta ekonomikoen berri, horietaz egin den finantza-ikuskatzea barne.

Horrekin guztiarekin, euskal kooperatibistentzat erakunde eza-gun, erabilgarri eta eraginkor bihurtu nahi da Kontseilua.



OS A E R A

2001eko ekitaldian, ondorengo ordezte aipatu behar da:

■ Jose Francisco Plazaola jauna sartu da Asier Albizu jaunaren ordezean.

Beraz, hona hemen Kontseiluaren osiera ekitaldiaren amaieran:

Lehendakaria

Jesus Alfredo Ispizua Zuazua jn.t.a.

Lehendakariordea

Fco. Javier Sanz Santaolalla jna.
(Lan Elkartuko Koop.en Federazioa)

Kontseilariak

Jose Fco. Plazaola jna.
Eusko Jauriaritza (Nekazaritza eta Arrantza Saila)

Angel Larrañaga jn.t.a.
Eusko Jauriaritza (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila)

Alejandro Martínez jna.
Deustuko Unibertsitatea

Baleren Bakaikoa jna.
Euskal Herriko Unibertsitatea

Jon Sarasua jna.
Mondragón Unibertsitatea

Alfredo Montoya jna.
Nekazari Kooperatiben Federazioa

Marta Areizaga and.
Kontsumoko Kooperatiben Federazioa

Juan M. Larrañaga jna.
Kredituko Kooperatiben Federazioa

Eduardo Fernández jna.
Irakaskuntzako Kooperatiben Federazioa

Juan M^a Concha jna.
Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa

Daniel Esnal jna.
Garraiolarien Kooperatiben Federazioa

Idazkari Orokor Teknikoa

Juan Luis Arrieta Pagaldai jna.

Halaber, hona hemen ekitaldian zehar lanean jardun duten batzorde delegatuak:

Sustapen eta Komunikazioa

Juan M^a Concha

Eduardo Fernández

Jose Francisco Plazaola

Alfredo Montoya, eta

Jon Sarasua



Araudien Aplikazioa

José Fco. Plazaola
Baleren Bakaikoa
Eduardo Fernández
Juan M. Larrañaga, eta
Fco. Javier Sanz

Azterlan eta Ikerketa

Marta Areizaga
Daniel Esnal
Alfredo Ispizua
Alejandro Martínez, eta
Fco. Javier Sanz

Zerbitzuak

Marta Areizaga
Alfredo Ispizua

Juan M. Larrañaga
Alejandro Martínez, eta
Alfredo Montoya

kontseiluko langileak

Ez da aldaketarik izan Kontseiluaren zerbitzura lan egiten dutenei dagokienez. Hona hemen osaera:

Juan Luis Arrieta jauna
Idazkari Orokor Teknikoa

Lourdes Igartua andrea
Zuzendaritzako Idazkaria

Santiago Merino jauna
Abokatu Aholkularia



EKITALDIAREN GARAPENA



2001 EKO EKITALDIAREN GARAPENA



Ondoren, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak 2001eko ekitaldian zertutako jarduerak laburtzen dira, bere baitako batzordeen esparru funtzionalen araberaren multzokatuta.

SUSTAPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Elkarteekiko Hitzarmenak

Aurreko ekitaldietan bezalaxe, elkarrekin (Kooperatiba Federazioekin eta Kooperatiben Konfederazioekin) lan egin da kooperatibismoa sustatzeko programak berarekin batera finantzatzeko, aipatzekoak direlarik ondorengoak, besteak beste:

Lan Elkartua

- Lan Elkartuko kooperatibetan bazkide langileen gogobetetasuna neurtzeko esperientzia.
- Kooperatibetan Komunikazio Globaleko Planak ezartzeko programa.
- Lan Elkartuko Kooperatibismoaren Balioak eta Printzipioak komunikabideetan sustatzeko kanpaina.
- (MECE) "Euskadiko Kooperatiben Energi Hobe-kuntza" proiektuaren bideragarritasun-plana.
- Iraupen jakineko bazkideen sustapena Kooperatibetan.

Nekazaritza

- Erregaien eta animalien osasunerako produktuen hornidurari buruz ekintza bateratuen bideragarritasun-azterketa.
- Nekazaritza kooperatiboaren sektorean elkartze-esperientzia arrakastatsuak ezagutzeko bidaia teknikoa.
- Kooperatiba elkartuen katalogoa.

Kontsumoa

- "Kooperatiba" aldizkaria.

Irakaskuntza

- Kooperatiba izatearen balio erantsia identifikatzea irakaskuntzako kooperatibetan.

Hitzarmena Mondragón Unibertsitatearekin

Mondragón Unibertsitatearekin elkarlanean ari gara ELIKA proiektuan, prestakuntza sozio-etiko eta kooperatiborako oinarritzko materiala sortzeko helburuz.

IHOBErekin hitzarmena

Kooperatiben Konfederazioarekin lankidetzan, IHOBErekin Hitzarmena sinatu da ingurumen-arloko ekintzak kooperatiben artean sustatu eta zabaltzeko.

OINARRIrekin hitzarmena

Diru Fondo bat eratu da, abala eskatzen duten kooperatibei, 100 lanpostu baino gutxiago badituzte, OINARRIn Kapital Sozialeko ekarpenak errazteko.

Kooperatiben arteko FEPC fondoa ezartzeari buruzko azterketa martxan jartzea.

Heziketa eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoa hornitu eta era-



biltzeko kooperatiben egungo praktikak aztertzeko eta kooperatiben arteko jokabideak proposatzeko helburua du.

Kooperatiba Sustapenerako Elkarte bat sortzeari buruzko azterlana martxan jartzea.

Lehen fasean, oro har enpresa-sustapenaren eta bereziki kooperatiba-sustapenaren egungo egoera aztertu nahi da, ondoren, kooperatiba-sustapenaren arloan jokabideak zehazteko.

Gizarte Ekimeneko kooperatibekin lankidetzaz, kooperatiba-eredua zabaltzeko.

Irabazi asmorik gabe, gizarte-ekimenaren esparruan diharduten erakundeen errealitateaz informazio gaurkotua sortzeko helburua du, gero arlo honetako kooperatibismoaren komunikazio- eta zabalkunde-estrategiak garatzeko oinarri gisa. Hori guztia "Gizarte-ekimenaren esparruan diharduten erakundeen gida" baten bidez.

Lankidetzaz Poltsaren taxutzea martxan jartzea

Kooperatibismoaren hainbat arlotan arrakastatsuak izan diren lankidetzaz-praktikak aztertu ondoren, kooperatiben arteko lankidetzaz areagotzeko proposamenak aurkeztuko dituen azterlan bat egitea du helburua.

EMAKUNDEekin lankidetzaz elkarrekin prestakuntza-testuak berrikusteko

EMAKUNDEekin lankidetzaz, Kooperatiba Federazioek emandako prestakuntza-ikastaroetan erabilgaitako testuak berrikusi dira generoaren ikuspegitik, eta berrikuspen horretan proposatutako aldaketak sartu dira testuetan.

"Lan berria eta balio kooperatiboak" gaiari buruzko jardunaldia

Gasteizko Villa Suso jauregian egin zen. Bertan Ignacio

Ramonet Le Monde Diplomatique-ko zuzendariak eta Luis Racionero Biblioteca Nacional-eko zuzendariak hitz egin eta eztabai-datu zuten izenburuko gaiaz. Ondoren, topaketa izan zen beste Kooperatiba-Kontseilu batzuetako ordezkarien artean.

AZTERKETA ETA IKERLANA

2000ko Urtekaria argitaratuta da.

Urtekari horretan iazko ekitaldian egindako azterlanak agertzen dira; hau da:

- Euskal kooperatibismoari buruzko txostena.
- EAEko kooperatiben sentiberatasuna eta portaera onak gizon eta emakumeen aukera-berdintasuna sustatzeari dagokionez.
- EAEko kooperatiben sentiberatasuna eta portaera onak ingurumenaren babesari dagokionez.



Balio kooperatiboak aztertze-ko metodologia jasotzen duen azterlan bat egin da

Egindako azterlan horren helburua EAEko kooperatibetan balioen eta printzipioen azterketa egiteko metodologia ezartzea izan da.

Balantze sozio-ekonomikoa egiteko oinarriak finkatzen dituen azterlana

Euskal kooperatibismoaren Balantze sozio-ekonomiko agregatua lortzeko, euskal kooperatiben artean inkesta bat egitea sartzen da azterlanean.

“Balantze sozial” bat gartzeari ekin zaio

Kooperatibek ematen dituzten irabazien kontabilizazioa aldizka lortu eta egiaztatze helburua du, ez ekonomiaren eta finantzen ikuspegitik bakarrik, baita beste aldagai soziologiko batzuetan duen eraginaren ikuspegitik ere.

“Kooperatiba Kudeaketarako Gida” egin da

Enpresa kooperatiboaren berezitasunei buruzko hausnarketa eman nahi zaio irakurleari argitalpen honen bidez, eta bere kudeaketa zuzenaren garrantziaz kontzientziatu nahi da.

ARAUDI APLIKAZIOA

Aginduzko txosten hauek egin dira:

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren Agindu Proiektua, Komunitateko EQUAL Ekinmenari dagozkion laguntzak eskuratzeko lehenengo deialdia arautzen duena.
- Dekretu Proiektua, OSALANen egitura eta jardueraren Araudia arautzen duena.

Kooperatiben Erregistroari lagundu zaio zazpi kontsulta bideratzen.

31 kitapen-espeditente eta 3 eraldaketa-espeditente bideratu dira guztira.



kooperatiben arbitrajeko
euskal zerbitzuaren txostena



KOOPERATIBEN ARBITRAJEKO EUSKAL ZERBITZUAREN OROITIDAZKIA

Aurkezpena



Ondorengo datuetatik ikus daitekeenez, Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzuak kudeatzen duen arbitraje kooperatiboa sendotuz doa, kontuan izanda bideratutako kasuak, bai adiskidetze aldetik eta bai arbitraje aldetik.

Beste kasu batzuetan aipatu izan dugun bezala, helburua ez da arbitraje asko egitea, baizik eta kooperatiba-munduan sortzen diren gatazkak arbitrajearen bidez konpontzea baizik. Eta hori betetzen ari garela uste dugu.

Bestalde, 2001eko ekitaldian **“Euskal Arbitraje Kooperatiboaren Eskuliburua”** argitaratu da. Gure ustez, bere izaera praktikoa kontuan hartuta, oso erabilgarria da arbitraje kooperatiboaren azterketa teoriko edo erabilera praktikoaaren aurrean irakurleak dituen zalantza asko argitzeko.

Datuak aurkeztu aurretik, biziki eskertu nahi dugu sortutako gatazkak arbitraje bidez konpontzen parte hartzen duten guztien lana, bereziki laudoak eman dituzten arbitroen lana.



Arbitraje Zerbitzua

Hona hemen 2001eko ekitaldian egin diren arbitrajeak:

ARB-1-2001	LAN ELKARTUA	KAPITAL-EKARPENA ITZULTZ.
ARB-2-2001	LAN ELKARTUA	KAPITAL-EKARPENA ITZULTZ.
ARB-3-2001	LAN ELKARTUA	INFORMAZIO-ESKUBIDEA
ARB-4-2001	ETXEBIZITZAK	BAZKIDEAREN ZORRA
ARB-5-2001	LAN ELKARTUA	KOOP.ARTEKOKALTE-ORDAIN
ARB-6-2001	NEKAZARITZA	ESKUDUNTZA EZ ERABILTZEA
ARB-7-2001	LAN ELKARTUA	KAPITAL-EKARPENA ITZULTZ.
ARB-8-2001	LAN ELKARTUA	KAPITAL-EKARPENA ITZULTZ.
ARB-9-2001	LAN ELKARTUA	KAPITAL-EKARPENA ITZULTZ.

Adiskidetze Zerbitzua

Ekitaldian zertu diren adiskidetzeak, bazkideek kooperatiba utzi dutela-eta, kitapenen inguruko auziei buruzkoak izan dira:

ADISK/CON-1-2001	ETXEBIZITZAK	ADMINISTRATZAILE ERANTZ
ADISK/CON-2-2001	LAN ELKARTUA	BAZKIDEAREN ZORRA
ADISK/CON-3-2001	LAN ELKARTUA	KAPITAL-EKARPENA ITZULT.
ADISK/CON-4-2001	ETXEBIZITZAK	ADMINISTRATZAILE ERANTZ.
ADISK/CON-5-2001	ETXEBIZITZAK	ADMINISTRATZAILE ERANTZ.
ADISK/CON-6-2001	LAN ELKARTUA	KAPITAL-EKARPENA ITZULT.
ADISK/CON-7-2001	LAN ELKARTUA	KAPITAL-EKARPENA ITZULT.
ADISK/CON-8-2001	IRAKASKUNTZA	BAZKIDEA KANPORATZEA
ADISK/CON-9-2001	LAN ELKARTUA	KAPITAL-EKARPENA ITZULT.
ADISK/CON-10-2001	LAN ELKARTUA	KAPITAL-EKARPENA ITZULT.



AUREKONTUARI BURUZKOAK



AURREKONTUARI BURUZKOAK

H

ona hemen 2001. urteko ekonomi eta finantza-datuen laburpena, baita 2000ko ekitaldikoekin parekatuta ere, milaka pezetatan.

Finantzen egoera-orriak, 2001eko ekitaldiko datu errealek euskarri direnak, LKS Auditores enpresak ikuskatu ditu eta, bere ustez, zentzuz erakusten dute Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak 01.12.31n zuen finantza- eta ondare-egoera.

Halaber, badugu Eusko Jaurlaritzako Ekonomi Kontrolerako Bulegoak egindako ikuskaritza-txostena; bertan zenbait gomendio daude, administrazio-kontratazioari buruzkoak bereziki, eta Zerbitzu Batzordeak kontuan hartu ditu gomendio horiek, Kontseiluko Kontratazio Organo gisa bere egitekoak betetzerakoan.

Urteko Kontuen Ikuskaritza Txostenaren hitzez hitzeko transkripzioa

EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUAren urteko kontuak ikuskatu ditugu: berauetan 2001eko abenduaren 31n zuen egoera-balantzea, eta data berean itxitako ekitaldiko galera eta irabazien kontua eta oroitidazkia sartzen dira, horien formulazioa erakundeko Idazkari Orokor Teknikoaren ardura delarik. Gure ardura urteko kontu horiei buruz, orokorrean, iritzia ematea da, egin dugun lanean oinarrituta. Lan hau, orokorki onarturik dauden ikuskaritza-arauen arabera egin dugu, eta hauek, hautazko probak eginez, urteko kontuen egiaztagirien azterketa eta berorien aurkezpena, erabilitako kontabilitate-printzipioak eta egindako kalkuluak balioestea eskatzen dute.

Merkataritza-legeriaren arabera, konparazioak egin ahal izateko, balantze-ko, galera eta irabazien kontuko eta finantzaketa-koadroko partida bakoitzarekin, 2001eko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko zifren ondoan, aurreko ekitaldikoak ere aurkeztu ditu Idazkari Orokor Teknikoak. Gure iritzia 2001eko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko kontuei buruzkoa da bakarrik. 2001eko urtarrilaren 22an gure ikuskaritza-txostena eman genuen 2000ko ekitaldiko kontuei buruz, eta aldeko iritzia azaldu genuen orduan.

Gure iritiz, 2001eko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko kontuek, beren alderdi garrantzitsu guztietan, EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUAK 2001eko abenduaren 31n zuen ondarea eta finantza-egoera zuzen adierazten dituzte, baita egindako eragiketen emaitzen eta data berean itxitako ekitaldian lortu eta erabilitako baliabideena ere; gainera, behar hainbat informazio dute egoki interpretatu eta ulertzeko, orokorki onarturik dauden kontabilitate-printzipio eta arauen arabera, aurreko ekitaldian erabilitakoekiko uniformeak direlarik.



2001.12.31ko balantze laburtua

Ondoren, 2001eko ekitaldiaren itxierako Balantze laburtua, ikuskatua izan ondoren, eta 2000ko ekitaldikoarekin parekatuta, guztia milaka pezetatan.

AKTIBOA	01.12.31	00.12.31	PASIBOA	01.12.31	00.12.31
IBILGETUA	905.603	334.322	FONDO PROPIOAK	12.517	12.709
• Ibilgetu inmaterialak	58.532	60.215	• Gerakina	12.709	24.453
Emakidak, patenteak, lizentziak, markak	2.102	1.966	• Galera-irabaziak	(192)	(11.744)
Erabilera lagatzeko eskubideak	65.175	65.175	HAINBAT EKITALDIETAN		
Amortizazioak	(8.745)	(6.926)	BANATZEKO SARRERAK	66.878	70.318
• Ibilgetu materialak	8.345	10.103	• Kapital subentzioak	9.282	11.206
Instalazioak, altzariak	47.890	47.890	• Hainbat ekitalditan banatzeko		
Beste ibilgeturik	23.148	22.566	beste sarrera batzuk	57.596	59.112
Amortizazioak	(62.693)	(60.353)	GASTUETARAKO HORNIDURAK		
• Finantza Ibilgetuak (1)	838.726	264.004	FAEC (2)	566.684	195.635
Finantza-partaidetzak	44.592	12.730	EPE LUZEKO		
Beste kreditu batzuk	825.906	251.184	HARTZEKODUNAK (3)	412.953	125.592
Fidantzak	90	90	• Bestelako hartzekodun batzuk	412.953	125.592
Hornidurak	(31.862)	----	EPE LABURREKO HARTZEKOD.	97.147	30.968
AKTIBO ZIRKULATZAILEA	250.576	100.900	• Hartzekodun komertzialak	94.199	28.292
• Zordunak	100.429	21.481	Zorrak erosketa edo		
Zenbait zordun	100.429	21.481	zerbitzu-emateagatik	94.199	28.292
• Diruzaintza	150.147	79.419	• Beste zor batzuk ez komertzialak	2.948	2.676
			Herri Administrazioak	2.948	2.676
AKTIBOA GUZTIRA	1.156.179	435.222	PASIBOA GUZTIRA	1.156.179	435.222

(1) Partaidetza-kontuen saldoak, eraldatutako kooperatibei emandako kredituak eta OINARRI, S.G.R.n dagoen partaidetza.

(2) FAEC-Kooperatiben Iraungipeneko Aplikazio Fondoak 2001 ekitaldian eta baita aurrekoetan ere Kontseiluaren esku utzitako kopuruen saldo erabili gabea jasotzen du, kitatutako edo/eta eraldatutako kooperatiben ondorio gisa.

(3) Elkartei ordaindu gabeko kopuruak dira, kooperatiben kitatze eta eraldatze-prozesuetan izandako sarreren ondorioz



2001 ekitaldiko galerak eta irabaziak

Ondoren, 2001 ekitaldiko galera eta irabazien kontua agertzen da, 2000. ekitaldiko datuekin alderatuta, guztiak milaka pezetatan.

ZOR	01.12.31	00.12.31	HARTZEKO	01.12.31	00.12.31
GASTUAK			SARRERAK		
• Egindako transferentziak	51.658	53.406	• Ustiapeneko sarrerak	245.928	159.496
• Pertsonaleko gastuak	23.046	21.964	• Hartutako transferentziak	110.924	110.638
Soldatak eta lantsariak	18.627	17.640	• Bestelako sarrerak (1)	135.004	48.858
Karga sozialak	4.419	4.324			
• Ibilgetu mugiezin dotazioak	4.159	4.795			
• Kanpo-zerbitzuak	41.447	51.921			
• Itzultze-Fondo dotazioa (1)	127.515	42.737			
USTIAPENeko MOZKINA	-	-	USTIAPENeko GALERAK	1.897	15.327
• Finantza gastuak	-	3	• Finantza sarrerak	714	2.260
FINANTZA-EMAITZA POSITIB.	714	2.257	FINANTZA-EMAITZA NEGAT.	-	-
OHIKO JARDUERET. MOZKINAK	-	0	OHIKO JARDUERETAKO GALERAK	1.183	13.070
• Aurreko ekitaldi gastuak	413	-	• Aparteko sarrerak	1.516	1.516
• Aur. ekitaldi galera-irabaziak	399	190			
APARTEKO EMAITZA POSITIBO	991	1.326	APARTEKO SARRERA NEGAT.	287	-
ZERGA AURREKO MOZKINA	-	-	ZERGA AURREKO GALERAK	192	11.744
EKITALDIKO EMAITZAK (Irabaziak)	-	-	EKITALDIKO EMAITZA (Galerak)	192	11.744

(1) Funtsean, kooperatibak kitatu edo/eta eraldatu ondorengo sarrerak eta Kooperatiben Iraungipeneko Aplikazio Fondora egindako dotazioak dira.



2001. ekitaldiko aurrekontu-egoera

2001. ekitaldirako ezarritako ohiko aurrekontuaren eta benetan lortutako zifren arteko konparazioa honako hau da, milaka pezetatan.

KONTZEPTUA	AURREK. 2001	ERREALA 01.12.31	%
GASTUAK			
Pertsonaleko gastuak	22.600	23.046	101,98 %
Funtzionamendu-gastuak	21.094	19.661	93,21 %
Lokomozioa, egonaldiak eta leku-aldaketak	1.030	1.588	154,23 %
Kuotak eta harpidetzak	515	599	116,39 %
Bilerak, hitzaldiak eta ikastaroak	14.228	9.729	68,38 %
Azpikontratazioa	515	851	165,13 %
Funtzionamenduko beste gastu batzuk	4.892	6.894	140,91 %
FAEC-CIPES GASTUAK	2.500	2.661	106,45 %
BIRJARPENeko INBERTSIOAK	1.500	718	47,90 %
JARDUERA OROKORRETAKO GASTUAK	2.500	3.158	126,30 %
BATZORDEEN JARDUERA-GASTUAK	76.900	36.112	46,96
Sustapen eta Komunikazio Batzordea	59.400	28.079	47,27 %
Azterlan eta Ikerketa Batzordea	10.000	3.493	34,93 %
Araudien Aplikazio Batzordea	7.000	4.541	64,87 %
Zerbitzuen Batzordea	500	---	---
FAEC HITZARMENAK ELKARTEEKIN	65.000	73.837	113,60 %
ELKARTZE-EGITUREN KOFINANTZAKETA	36.330	36.330	100,00 %
FEDERAZIOEN PROGRAMEN KOFINANTZAKETA	17.076	15.328	89,76
GASTUAK GUZTIRA	245.500	210.853	85,89 %



ESTATISTIKA ERANSKINA

Gizarte ekonomiaren kontuak

E

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailak "Gizarte Ekonomiaren

Kontuak 1999-2000 biurtekoan" prestatu ditu. Helburua Gizarte Ekonomiak EAEko ekonomian duen garrantzia eta ezaugarriak ezartzea da, eta 1998ko edizioari buruzko bilakaera erakustea.

Laburtuz, esan daiteke EAEko Gizarte Ekonomia 53.852 enplegura eta 2.618 establezimendutara iritsi zela 2000. urtean, eta hori 2.150 enpresatan, 396.000 milioi pezetako Balio Erantsi Gordina sortu zutelarik.

Datu horiek esan nahi dute Gizarte Ekonomiak EAEn duen pisu espezifiko biztanleria landun edo okupatuaren %6,5ekoa dela (%6koa 1998an) eta Balio Erantsi Gordin osoaren %5,6koa (1998an ehuneko bera zen), horrela finkatu egin delarik 1994az geroztik hazteko sumatu den joera.

Hona hemen Gizarte Ekonomiako magnitude nagusiak alderatzeko koadroak:

KOADRO OROKORRA

KONTZEPTUA	2000	1998
Establezimendu-kopurua	2.618	2.272
Enplegua	53.852	47.980
Salmentak (MM pezeta)	1.065.709	889.059
Balio Erantsi Gordina (MM pezeta)	336.777	290.776
Esportazioak (MM pezeta)	238.721	202.868
Esportazioak Salmentei buruz (%)	22,4	22,8
Mozkinak (MM pezeta)	74.974	56.389
Inbertsioak (MM pezeta)	69.873	50.180
Cash-flow (MM pezeta)	125.451	97.645



Ondorengo koadroetan, aldagai esanguratsuenak datoz xehatuta forma juridikoaren arabera, baita establezimenduen eta enpleguaren lurralde-banaketa ere:

ENPLEGUAREN BANAKETA SEKTORIALA

SEKTOREA	GUZTIRA		KOOP. E.		Lan Soz.Anon.		Soz.Mugat.	
	2000	1998	2000	1998	2000	1998	2000	1998
Nekazaritza	128	161	107	122	19	35	2	4
Industria	31.165	28.743	22.722	20.650	7.440	7.919	1.003	174
Eraikuntza	2.173	1.900	1.051	951	657	842	465	107
Zerbitzuak	20.386	17.176	17.818	15.102	1.335	1.477	1.233	597
GUZTIRA	53.852	47.980	41.698	36.825	9.451	10.275	2.703	882

BALIO ERANTSI GORDINAREN BANAKETA SEKTORIALA (Zenbatekoak MM pezetatan)

SEKTOREA	GUZTIRA		KOOP. E.		Lan Soz.Anon.		Soz.Mugat.	
	2000	1998	2000	1998	2000	1998	2000	1998
Nekazaritza	598	656	516	486	81	162	1	7
Industria	216.565	187.352	172.001	144.128	40.573	42.742	3.990	482
Eraikuntza	9.689	8.099	4.651	4.063	2.758	3.717	2.280	319
Zerbitzuak	109.926	94.669	98.585	87.252	7.373	6.119	3.968	1.299
GUZTIRA	336.777	290.776	275.754	235.929	50.784	52.740	10.239	2.107



LURRALDE-BANAKETA

LURRALDEA	ESTABLEZIMENDUAK		ENPLEGUA		BALIO ERANTSI GORDINA	
	2000	1998	2000	1998	2000	1998
Araba	376	310	5.181	4.271	34.861	29.536
Bizkaia	1.200	1.037	19.656	18.202	109.649	94.411
Gipuzkoa	1.042	925	29.015	25.507	192.267	166.829
GUZTIRA	2.618	2.272	53.852	47.980	336.777	290.776

FORMA JURIDIKOAREN ARABERAKO BANAKETA

FORMA JURIDIKOA	2000	1998	2000	1998	2000	1998
Kooperatibak	1.502	1.374	41.698	36.825	275.754	235.929
Lan Soziet.Anon.	636	760	9.451	10.273	50.784	52.740
Soziet.Mugatuak	480	138	2.703	882	10.239	2.107
GUZTIRA	2.618	2.272	53.852	47.980	336.777	290.776

IRUZKIN OROKORRAK

1. Kooperatibek beren hegemoniari eusten diote Gizarte Ekonomiako enpresa guztien artean sortutako enpleguan eta balio erantsi gordinen dagokien partaidetzaren ehunekotan. Hala ere, ehuneko hiru puntu gutxitu da 1998ko egoerari buruz establezimendu-kopuruaren aldagaian.
2. Nahiz eta oraindik ere Gizarte Ekonomiak industri izaera nabaria izan, aurreko aldietan sumatutako tertziarizazio-prozesuak jarraitu egiten du, aztertutako aldagai nagusietan pisu erlatiboa gehituz.
3. Lurraldeei dagokienez, Gipuzkoa da garbi nagusi Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekonomian enpleguak eta Balio Erantsi Gordinak duten eraginean.



2001 ekitaldian zehar sortu diren kooperatibak Euskal Autonomi Erkidegoan

MOTA	ARABA			GIPUZKOA			BIZKAIA			E.A.E.		
	Koop.	Bazklid.	Kapitala	Coop.	Socios	Kapitala	Coop.	Socios	Kapitala	Coop.	Socios	Kapitala
Lan Elkartua	5	17	92.694	29	147	1.513.534	20	74	217.505	54	238	1.823.733
Kontsumoa	0	0	0	0	0	0	1	20	10.000	1	20	10.000
Irakaskuntza	0	0	0	1	13	6.010	0	0	0	1	13	6.010
Nekazaritza	1	10	94.640	0	0	0	1	4	240.405	2	14	335.045
Elkarl. ustiatz.	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Etxebizitzak	20	109	76.161	5	26	26.140	5	35	19.758	30	170	122.059
Kreditu	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Aseguruak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Osasun arloko	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Prof. serbitzu	0	0	0	1	13	12.621	0	0	0	0	13	12.621
Enpr. serbitzu	0	0	0	3	22	162.121	0	0	0	3	22	162.120
Erak. serbitzu	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Ezinduen giz.	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Bigarren mailako	0	0	0	2	49	186.905	2	6	12.020	4	55	198.925
Elkarleak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Korporazioak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Bitarikoak	0	0	0	1	4	6.000	0	0	0	1	4	6.000
GUZTIRA	26	136	263.495	42	274	1.913.331	29	139	449.688	97	547	2.76.514

Kooperatibak Euskal Autonomi Erkidegoan (2001-12-31ra)

MOTA	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	E.A.E.
	Kooperatibak	Kooperatibak	Kooperatibak	Kooperatibak
Lan Elkartua	130	335	382	847
Kontsumoa	2	12	16	30
Irakaskuntza	12	33	41	86
Nekazaritza	35	26	26	87
Elkarl. ustiatz.	0	1	2	3
Extebizitzak	43	55	29	127
Kreditu	0	2	0	2
Aseguruak	0	0	0	0
Osasun arloko	0	0	0	0
Prof. serbitzu	7	24	25	56
Enpr. serbitzu	0	3	1	4
Erak. serbitzu	0	0	0	0
Ezinduen giz.	0	0	0	0
Bigarren mailako	5	20	7	32
Elkarleak	0	0	0	0
Korporazioak	0	0	0	0
Bitarikoak	0	4	1	5
GUZTIRA	234	515	530	1.279

